



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

TOKI-ERAKUNDEK KONTRATU TXIKIAK IZAPIDETZEKO JARDUNBIDE EGOKIEN DEKALOGOIA

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA LEA/AVC 581-SUST-2022

Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero, presidentea

Rafael Iturriaga Nieva, bokala

Enara Venturini Álvarez, bokala

Ainara Herce San Martín, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), adierazitako kideez osatuta 2022ko abuztuaren 31n eginiko bileran, TOKI-ERAKUNDEEK KONTRATU TXIKIAK IZAPIDETZEKO JARDUNBIDE EGOKIEN DEKALOGO hau eman du.

AURKIBIDEA:



DECÁLOGO DE BUENAS PRÁCTICAS EN LA TRAMITACIÓN DE LOS CONTRATOS MENORES POR LAS ENTIDADES LOCALES		1
ABREVIATURAS:		2
I. COMPETENCIA.....		3
II. OBJETO		3
III. CARÁCTERÍSTICAS DEL CONTRATO MENOR.....		5
IV. IRREGULARIDADES EN EL USO DEL CONTRATO MENOR.....		7
4.1	Fraccionamiento del contrato.....	7
4.2	Recurrencia y concatenación de contratos.....	10
4.3	Irregularidades detectadas por LEA/AVC.....	12
V. PLANIFICACIÓN		12
VI. COLUSIÓN Y CONTRATO MENOR		14
6.1	Ofertas de cobertura	15
6.2	Subcontratación y facturas cruzadas.....	16
6.3	Vinculaciones entre empresas.....	17
VII. CONCLUSIONES.....		18
VIII. ANEXO.....		19
DECALOGO DE BUENAS PRÁCTICAS EN LA CONTRATACIÓN MENOR.....		19

LABURDURAK:

EKPAB	Estatuko Kontratazio Publikoko Aholku Batzordea
LEA/AVC	Lehiaren Euskal Agintaritza / Autoridad Vasca de la Competencia
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.
KAGBI	Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentea
EBJA	Europar Batasuneko Justizia Auzitegia



I. ESKUMENA

1. LEA/AVCren egitekoa bere sortze-legeak zehazten du (1/2012 Legea, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa). Lege horretan bi eginkizun nagusi esleitzen zaizkio. Lehendabizikoa lehiaren arloko arau-hausteen kasuak (kolusio-akordioak, nagusitasun-posizioaren abusuak eta egintza desleialen bidez lehia faltsutzekoak) ebaztearen ingurukoa da, eta, horretarako, dagozkion zehapen-prozedurak izapidetzen dira. Bigarrena merkatuetan lehia eta gardentasuna sustatzearen ingurukoa da.

2. LEA/AVCk egiten dituen sustapen-lanen artean, 1/2012 Legeak, otsailaren 2koak, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoak, 3.3 artikuluan esleitzen dion eskumenaren indarrez, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeei txostenak eta gomendioak egiten dizkie, merkatuetan lehia sustatu, hobetu eta bultzatzeko.

II. XEDEA

3. Dokumentu honen xedea da toki-erakundek kontratu txikiaren figura nola erabiltzen duten aztertzea, eta zenbait gomendio edo jardunbide egoki eskaintzea, erakunde horiek beren espedienteak izapidetzeko gidatzat izan ditzaten, kontratazio txikiaren erabilerak indarreko legeria errespetatuz eta lehia askearen printzipioa berma dezan.

4. Kontratu mota erraza eta izapidetzeko arina izatea da kontratu txikiaren berezitasuna, adjudikazioduna zuzenean eta ia berehala hautatzeko aukera ematen baitu, toki-erakundeetan erosketa publikoaz arduratzen direnei dagokien lana errazten diona, batez ere erakunde horiek txikiak badira eta ondasunez eta zerbitzuez hornitzeko laguntzaile espezializaturik ez badute.

5. Hala ere, azkenaldian, figura horren erabilera gogotik aztertu dute sektore publikoaren kontratazioa kontrolatzen eta fiskalizatzen diharduten erakundek, hain zuzen ere, kontratu horiek izapidetzeko erraztasunak haien gehiegizko erabilera ekarri baitu, ez beti justifikatua, bai eta irregularra ere¹.

¹ 2016ko uztailaren 27an, Europar Batasuneko Kontseiluak eman zuen «Kontseiluaren Erabakigomendia, Espainiari gehiegizko defizit-egoera konpontzeko behar diren defizita murrizteko neurriak hartuzan ohartarazpen bat egiten diona», kontratu-iragarki gutxi argitaratzen direla-eta, eta, ondorioz, alde aurretik argitaratu gabeko prozedura negoziatuaren eta zuzeneko adjudikazioen abusuagatik.

KAGBI. 2020ko abenduan argitaratu zen Espainiako Kontratazio Publikoa Gainbegiratzeko Urteko Txostenean (GUT 2020) ageri diren ondorioen artean: *Tokiko esparruan, fase horretan hautemandako irregulartasun nagusiak honako hauek dira: zuzeneko adjudikazioak egitea kontratua alde aurretik*

6. Beharrezkoa eta guztiz justifikatua bada ere kontratu mota horrek SPKLn indarrean jarraitzea, era berean da beharrezkoa toki-erakundeetan erosketa-espeditenteen plangintzan, prestaketan, diseinuan, izapidetzean eta adjudikazioan parte hartzen dutenek behar adinako ezagutza eta segurtasun juridikoa edukitzea, jakin ahal izateko figura horretara noiz jo daitekeen eta SPKLren 1. artikuluan jasotako kontratazio-printzipioak nola bete behar dituzten, besteak beste, lehia askea babestea.

7. SPKLren 1. artikuluan agertzen diren printzipioei –parte hartzeko askatasuna, publikotasuna, gardentasuna, diskriminaziorik eza, tratu-berdintasuna, osotasuna, efizientzia eta lehia askea babestea– jarraitu behar zaie erosketa publikoko prozesu orotan; beraz, baita kontratu txikiak izapidetzean ere.

8. Dokumentu hau egiteko, kontuan hartu dira aurretiaz landutako sustapen-jarduerak eta kontratazio txikiaren inguruan egindako kontsultei LEAk emandako erantzunak.

Horri dagokionez, agintaritza honen webgunean honako txosten hauek kontsulta litezke:

► *LEA/AVC 395-SUST-2019 Txostena, Mañueta, Eltziego, Guardia, Leza, Moreda Araba, Navaridas, Samaniego eta Villabuena Arabako Udaletako Kontratazio Txikiari Buruzkoa.*

[TXOSTENA, MAÑUETA, ELTZIEGO, GUARDIA, LEZA, MOREDA ARABA, NAVARIDAS, SAMANIEGO ETA VILLABUENA ARABAKO UDALETAKO KONTRATAZIO TXIKIARI BURUZKOA. - Txostenak eta kontsultak - Lehiaren Euskal Agintaritza \(euskadi.eus\)](#)

► *LEA/AVC 439-SUST-2020 Debako Udalaren kontratazio txikiari buruzko txostena.*
https://www.steam.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/eu_informes/INFORME-CONTRATACION-MENOR-AYUNTAMIENTO-DE-DEBA-eu.pdf/

► *LEA/AVC 479-SUST-2020 Hondarribiko Udalaren kontratazio txikiari buruzko txostena.*
https://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/tramita_informe/hondarribia_479/eu_def/adjuntos/479-Hondarribiako-udala-txostenadocx.pdf

► *Kontratazio publikoari eta lehiari buruzko gida, 2018koa eta 2020ko haren eguneratzea.*
https://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/guias_gidak/eu_gidak/adjuntos/GUIA_CONTRATACION_COMPETENCIA_eu.pdf
https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/avc_quia_09/eu_def/adjuntos/Actualizacion_GUIA_AVC_CONTRATACION_COMPETENCIA_eu.pdf

lizitatu gabe, kontratu-estaldurarik gabe jasotako prestazioak, eta hautatutako adjudikazio-prozeduraren edo espeditentearen izapidetze motaren justifikazio eskasa.

Era berean, 2021eko Gainbegiratzeko Urteko Txostenean (GUT 2021), tokiko kontratazioari eta kontratu txikiaren erabilerari dagokienez, beste gorabehera batzuen artean, adierazten da kontratazio txikia dela gehien erabiltzen den prozedura (% 87,63) tokiko esparruan: *Ikus daitekeenez, kontratu kopuruaren ikuspegitik, kontratazio txikia da gehien erabiltzen den prozedura (% 87,63), autonomia-erkidegoetan gertatzen zen bezala, eta, ondoren, alde handiarekin, dator prozedura irekia.*



III. KONTRATU TXIKIAREN EZAUGARRIAK

9. Kontratu txikien ezaugarri nagusia da kontratu modalitate hori noiz erabil daitekeen mugatzen duen gehieneko atalasea. Hala, SPKLren 118. artikulua kontratu txikitzat jotzen ditu 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obra-kontratuak, eta 15.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten zerbitzu- edo hornidura-kontratuak.

10. SPKLn xedatzen denaren arabera, kontratu txiki bat izapidetzeko, zenbatekoaren gehieneko mugari men egiteaz gain, honako baldintza hauek bete behar dira:

- a) Iraupena ezin da urtebetetik gorakoa izan, eta ezin da luzatu.
- b) Kontratazio-organoak txostena egin behar du, non modu arrazoituan justifikatu behar baita kontratuaren beharra, eta haren objektua ez dela aldatu atalaseak aplikatzea saihesteko (ez da beharrezkoa, kutxa finkoko aurrerakinen sistemaren edo antzekoen bidezko ordainketak badira, betiere 5.000 eurotik gorakoak ez direnean).
- c) Onetsi egin behar da gastua.
- d) Faktura jaso behar da.
- e) Obra-kontratuan, obra-aurrekontua eta, hala badagokio, proiektua erantsi behar dira.
- f) Multzoka eta hiru hilean behin argitaratu behar dira kontratatzailearen profilean, 5.000 mila eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuak salbuetsita, ordainketa txikiak egiteko kutxa finkoko aurrerakinaren edo antzeko sistemaren baten bidez ordaintzen bada (SPKL, 63.4 artikulua).

Baldintza horiek betetzen badira, kontratua zuzenean adjudikatu ahal izango zaio jarduteko gaitasuna duen eta prestazioa gauzatzeko behar den lanbide-gaikuntza duen edozein enpresabururi (SPKL, 131.3 artikulua).

11. Bistakoa denez, legegileak kontratu txikiari erregulazio laburra ematea erabaki du. Berehalako hornitzailea hautatzeko modu arin eta erraza da, eta ez ditu eskatzen gainerako adjudikazio-prozeduretarako eskatzen diren ohiko baldintzak; horrek asko errazten du toki-erakundearen beharrak asetzea.

Baldintzen artean, nabarmentzekoa da lizitazioaren aldez aurreko publizitatea ez eskatzea²; beraz, modalitate horrek mugatu egiten du operadore ekonomikoen parte hartzeko askatasuna, lehia murriztu, eta ez du bermatzen operadoreen arteko tratu-

² Parte hartu ahal izateko publizitatea esan nahi da; geroztiko publizitatea, kontratu txikia adjudikatu ondoren kontratatzailearen profilean egin beharrezkoa, nahitaezkoa baita (SPKL, 63.4 artikulua).



berdintasuna. Ez da beharrezkoa kontratazio-agiriak lantzea, eta ez da eskatzen txosten juridikoa egitea, espediente onestea edo kontratazio-mahaiak parte hartzea, bestek beste.

12. Kontratu horiek bereizgarri duten zenbateko urriak justifikatzen du, hain zuzen ere, horrelako hautaketa-prozedura bat ontzat eman izana. Hala ere, kontratazio modalitate hori ez da arrunki erabil dadin asmatu; aitzitik, haren xedea da azkar erantzutea ezohiko egoeretan sor daitezkeen salbuespenezko premiei eta aurreikusi ezin izan diren beharrei; munta txikikoak izateagatik, efizientziaren eta interes publikoaren mesedetan, uste baita gainerako prozeduretan erabiltzen diren baldintzak eta printzipioak (publikotasuna, lizitazioan parte hartzeko berdintasuna, diskriminaziorik eza, gardentasuna edo lehiaren bermea) zorrotz ez aplikatzea konpentsatu daitekeela.

13. Egia da SPKLren artikuluek ez dutela beren-beregi jasotzen kontratu modalitate horren erabilera salbuespenezkoa izango dela, eta premia jakin batzuetarako soilik erabili beharko dela hura; baina zioen azalpenean berariaz adierazten da, hain zuzen ere, SPKLn prozedura laburtu sinplifikatu gisa sortutako prozedura berria dela eta zuzeneko kontratazioa ezohiko egoeretara mugatu behar dela: (...) Izan ere, *kontratazio-prozesua halako moduz pentsatu da non haren iraupena oso laburra izango den, eta izapidetzea, berriz, oso erraza, betiere kontratua lizitatzeko prozeduraren arloan behar den publizitatea eta gardentasuna ahaztu gabe. Prozedura horretan, gainera, izapidetze bereziki sumarioa gaitzen da zenbateko eskasa duten kontratueterako; bada, izapidetze horrek berekin ekarri behar du kontratu publiko guztietan publizitatea eta efizientzia finkatzea, zuzeneko kontratazioa ohiz kanpoko egoeretarako utzita.*

14. Bestalde, SPKLk beren-beregi agintzen du adjudikazioa, arrunki, kalitate/prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako hainbat adjudikazio-irizpide erabiliz egingo dela, eta prozedura irekia edo prozedura murriztua erabiliz (SPKL, 131.2 artikulua); beraz, ez dago zalantzarik salbuespenez erabili behar dela kontratu txikiaren modalitatea.

15. Hala ere, orain arte adierazitakoa SPKLk kontratu txikiaren betekizunei eta izapideei buruz xedatzen duen arauditik eratoritzen dena bada ere, kontratazio txikiko prozesuetan jarraitu beharreko kontrataziorako barne-arau, -gomendio edo -jarraibideez hornitu dira zenbait administrazio eta erakunde, eta haien aplikazio-eremu subjektiboaren barruan dauden erakundeek bete egin beharko dituzte halakoak ere.



16. Horietakoak dira, adibidez, EAEko sektore publikoko erakundeen Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen gomendioak, edo KAGBlren Instrukzioa³.

IV. IRREGULARTASUNAK KONTRATU TXIKIA ERABILTZEAN

17. Kontratu txikia salbuespenez erabili behar bada ere, figura horren gehiegizko erabilerak alarma piztu du, eta haren erabilgarritasuna jarri ituan.

18. Horregatik, beharrezkoa da segurtasun juridikoa ematea eta kontratu txikiaren erabileran inoiz ere gainditu ezingo diren marrak zehaztea, SPKLk ezartzen dituen marra gorriak beren-beregi gogoraraziz: kontratua zatikatzea, haren objektuarekin zuzenean lotuta; bide horretara jo ahal izateko atalaseak gainditzea; eta kontratuak errepikatzea edo kateatzea, denbora-muga ez betetzearekin zuzenean lotuta, baita zatikatzearekin berarekin ere.

4.1 Kontratua zatikatzea

19. Arestian adierazi den bezala, kontratazio txikiaren espedientean etorri behar du kontratazio-organoaren txostenak, non justifikatu behar baita ez dela aldatu kontratuaren objektua atalaseak aplikatzea saihesteko.

SPKLren 99.2 artikulua ezartzen duenez, kontratu bat ezingo da zatitu haren zenbatekoa murriztu, eta, horrela, dagozkion publizitate-betekizunak edo adjudikazio-prozedurakoak saihesteko. Erregulazio hori orokorra da, eta edozein kontratazio-prozedurari aplika dakioko.

20. Kontratua zatikatu ote den eta zatitze horren bidez kontratazio-prozedura erregulatu behar duten arauak saihestu diren zehazteko, kontratuaren objektuaren definizioaren eta zatikatzearen definizioaren baterako azterketa egin behar da, bai eta zatikatzeari berari buruzkoa ere; izan ere, zatikatu den aztertzeke, objektuaren definiziotik abiatu behar da.

21. Objektuak zer barnebildu behar duen ebazteko, SPKLren 99.1 artikulua adierazten du kontratuen objektuak zehatza izan behar duela; horri gehitu behar zaio objektu

³ 1/2020 GOMENDIOA, martxoaren 5koa, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearena. Kontratu txikiak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera. https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/informacion/kpecpe_jasesora_recomend/eu_def/ad_juntos/Recomendacion-1_2020- -Contratos-menores- -EUS.pdf

Ebazpena, 2019ko martxoaren 6koa, Kontratazioa Arautzeko eta Gainbegiratzeko Bulego Independentearena, azaroaren 8ko 9/2017 Legean araututa dauden kontratu txikiei buruzko 1/2019 Instrukzioa, otsailaren 28koa, argitaratzen duena. <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2019-3281&p=20190307&tn=1>

osoari buruzkoa izan beharko duela, SPKLren 116.2 artikulua agintzen duenaren arabera, hau da, erakundeak erabilgarritasun berari dagokionez dituen premiak estaltzeko prestazio guztiak ase beharko dituela. Objektu hori bete nahi diren beharrian edo funtzionaltasun zehatzei erreparatuta definitu ahalko da, objektua konponbide bakar batera mugatu gabe.

22. Kontratazioaren kanpo-kontrolako organoek eta doktrinak «eragiketa- edo funtzio-batasuna» terminoa sortu dute, kontratuaren objektua zer prestaziok jaso behar duten zehazteko orduan kontuan hartu beharreko irizpide gisa. Eragiketa- edo funtzio-batasuna egongo da, baldin eta elementuak ezin badira bereizi xede jakin bat lortzeko, edo elementu horiek guztiak ezinbestekoak badira kontratuaren bidez lortu nahi den horrek behar bezala funtziona dezan⁴.

23. 2020ko uztailaren 29an EKPABek emandako txostenean, honako hau ondorioztatzen da:

Bestalde, aurreko gaia ebaztean, ondorio horietarako funtzio-batasunaren kontzeptuari buruzko gure doktrina irmoa islatu da, eta adierazi dugu doktrina hori bat datorrela ondoz ondoko kontratuen objektuen artean eragiketa-lotura bat dagoenean, kontratuaren bidez lortu nahi denerako ezinbestekoak izan daitezten. Kasu horretan, objektuak berdinak dira, denboran banatutako kontratuak besterik ez dira, eta ezin daiteke zalantzan jarri funtzio-batasuna.

24. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ere horren inguruko zenbait epai eman ditu, besteak beste, C-574/10 auzian, Europako Batzordea eta Alemaniako Errepublika Federala, non ondorioztatzen baitzen aztertutako hiru arkitektura-kontratu elkarri lotuta zeudela, eraikin bererako obra bat zelako eta homogeneous tasun tekniko eta ekonomikoagatik; alegia, obra bakar gisa kontratatu behar ziren. T-358/08 kasuan, Europako Batzordea eta Espainia, Zaragozako Udalaren jarduerari dagokionez, 1996. eta 1999. urteen artean 35 lizitazio-iragarki argitaratu baitzituen saneamenduari buruzko zerbitzuak kontratatzeko, Auzitegiak ebatzi zuen estolderia-sarean egin beharreko lanen deskribapena antzekoa zela eta lanek funtzio ekonomiko berbera betetzen zutela.

25. Hondarribiko Udalaren kontratazio txikiari buruzko LEA/AVC 479-SUST-2021 txostenean, ondorioztatzen zen aztertutako muntaketa-zerbitzuen kontratuetan (101 kontratu 2018an; 105 kontratu 2019an; 87 kontratu 2020an) kontratua zatikatu egin zela; izan ere, kontratatutako prestazio guztiek barne hartzen zituzten muntaketa-

⁴ Valentziako Erkidegoko Kontuen Sindikaturaren fiskalizazioaren eskuliburuko definizioaren arabera. 2019ko apirilak 11.

zerbitzuari buruzko lanak, nahiz eta Udaleko sail desberdinentzat izan eta data eta arrazoi desberdinengatik egin beharreko ekitaldietarako (judoko txapelketa, Euskalphoto jaia turismo-jarduera, errege-kabalkada eta abar).

26. Beraz, elkarren artean loturarik ez duten objektuak dituzten prestazioak kontratatzen direnean izan ezik, prestazioak batera kontratatu behar dira, bestela zatikatze bidegabe baten aurrean egongo baikara.

Aipatu dugun Hondarribiko Udalaren muntaketa-zerbitzuen kasuan, Udalak kontzeptu horrengatik aurreikusi zituen behar guztien batura erabili behar zen adjudikazio-prozedura ebazteko kontuan hartu beharreko balio zenbatetsi gisa. Gainera, atalase hori zehazteko, objektua da garrantzizkoa, ez prestazioak eman behar dituen subjektua. Ildo horretan, atalasea heldu ondoren hornitzailea aldatzeak ez du ahalbidetzen beste kontratu txiki bat adjudikatzea beste hornitzaile batekin egindako muntaketa-zerbitzuengatik (batzuetan ikusi zen hornitzaile-aldaketa bat egiten zela kontratu txikiaren atalasea iristean), adjudikaziodunaren nortasunak ez baitu zerikusirik kontratua helburu bererako bada.

27. Ondorioz, zatikatze irregularraren kasu baten aurrean egongo gara kontratuaren objektua puskatu edo zatitzen denean, kontratu txikietarako dagoen modalitatearen bidez adjudikatzeko, eta SPKLn agertzen diren gainerako prozeduren bidezko izapidetzea saihestu ahal izateko⁵.

28. Berariaz aipatu behar da SPKLn obra-kontratueterako aurreikusitako salbuespena. SPKLn 13.3 artikulua xedatzen du proiektu independenteen bitartez finkatutako obrak kontratatu ahalko direla, obra oso baten ataletako bakoitzari dagozkionak, baldin eta atal horiek modu independentean erabili badaitezke erabilera orokorraren edo zerbitzuaren zentzuan, edo substantzialki definitu badaitezke eta aipatutako kontratazioaren komenigarritasuna oinarritzen duen baimen administratiboa eman badu aurrez kontratazio-organoak⁶.

Hasiera batean aurreikusitako malgutze bat da, eta SPKLn hirugarren xedapen gehigarrian mantendu egiten da oraindik⁷ 5.000 biztanletik beherako udalerrietarako,

⁵ Ez da zatikatze irregularrak egongo SPKLn 99.4 artikuluan araututako sortakako banaketaren kasua denean. Kasu horietan, gainera, behar bezala bermatuta geratzen da publizitatearen eta lizitazioaren berdintasunez parte hartzearen printzipioak bete egiten direla.

⁶ EKPABek horri buruzko txostena egin zuen bere 31/19 espedientean. Obra osoaren proiektua faseka zatitzea.

⁷ SPKLn hirugarren xedapen gehigarria: 7. 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, dena delako obra-kontratuaren finantzaketa urtebeteko aurrekontuarena baino handiagoa bada, obraren atal bakoitzerako proiektu berezitu bat idazteko aukera egongo da, atal horietako bakoitza bere aldetik

horiek arazo handiagoa izan baitezakete obra handiak finantzatzeko, eta, horrela, modu mailakatuan egitea ahalbidetuko litzaieke. 2017ko testua onetsi zenetik, zabaldu egin da.

4.2 Kontratuak errepikatu eta kateatzea

29. Berrito esan behar dugu kontratu modalitate hori erabiltzea zilegi dela, munta txikiko ezohiko premiei azkar erantzuteko beharrezkoa den heinean; hortik eratortzen da premiaren eta kontratazio publikoa arautzen duten printzipioak gutxitzearen arteko haztapena. Horregatik, ezin da erabili botere adjudikatzailaren esparruan errepikariak diren ondasun-, obra- edo zerbitzu-hornidura denean.

30. Prestazio errepikariak zehazten dira KAGBIren 1/2019 Instrukzioan; alegia, kontratu errepikariak dira urtez urte erakunde kontratatzailearen behar berari erantzuten diotenak, eta, beraz, kontratuok planifikatu eta prozedura arrunten bidez izapidetu daitezke⁸.

31. Hala, adibidez, agerikoa da toki-erakunde baten egoitzako garbiketa-zerbitzuak behin eta berriz errepikatzen direla, eta urteko hilabete guztietan eta urtez urte beharrezkoak direla. Horregatik, 12 hilabeterako kontratatu beharreko zenbatekoa 15.000 euroko atalatera iritsiko ez balitz ere, ezingo litzateke kontratazio txikira jo.

32. Prestazio horiek kontratu txikiaren modalitatearen bidez kontratatuko balira, kontratuaren objektua zatikatu dela pentsa liteke, eta kontratazioaren benetako iraupena, metatua, 12 hilabetetik gorakoa izango litzateke-eta⁹. Kontratuak kateatzearen adibide bat litzateke kasu hori.

33. Ondorio bera atera behar da urte osoan egin behar ez diren prestazioak izan arren, haien beharra ekitaldi guztietan errepikatzen bada; adibidez, udan hondartzetarako sorospen-zerbitzua kontratatzea. Kasu horretan, zatikatzea irregularra litzateke, hain zuzen ere, botere adjudikatzailen jarduera arruntaren barruan aise aurreikus litezkeen aldizkako prestazioak bereizita kontratatzea bailitzateke.

34. LEA/AVC 395-SUST-2019 txostenean, Mañueta, Eltziego, Guardia, Leza, Moreda Araba, Navaridas, Samaniego eta Villabuena Arabako udaletako kontratazio txikiari

erabiltzeko modua baldin badago zerbitzuaren erabilera orokorraz aparte, eta zehazki zer den definitzea baldin badago. Proiektuetako bakoitza kontratu baten bidez egikaritu ahalko da, 99. eta 101. artikuluen aplikazioa eragotzi gabe.

⁸ Ebazpena, 2019ko martxoaren 6koa, otsailaren 28ko 1/2019 Instrukzioa argitaratzen duena.

⁹ Gogorazi behar da kontratu txikiek ezingo dutela urtebete baino gehiago iraun, eta ezingo direla luzatu (SPKL, 29.8 artikulua).

buruzkoan, udal horiek eskatutako arkitekturako eta obra-zuzendaritzako proiektuak idazteko kontratu txikiaren erabilera aztertzen zen. Txosten horretan, LEKek adierazten du kontratu txiki bat zuzenbidearen aurkakoa dela, baldin eta kontratua izapidetzen hasteko unean jakina bada prestazio unitario bat kontratatu behar dela, behar bezala definitua eta urtez urte egin behar dena; baina, baita ere, hala egin behar izatea zentzuz aurreikusteko modukoa bada. Aztertutako kasuetan ikusten zen kontratu asko aurreikusteko modukoak ziren prestazioei zegozkiela –urbanizazioak, konponketak eta abar–, kontratazioen historian behin eta berriz errepikatzen baitzen arkitektura-zerbitzu jakin batzuei erantzuteko etengabeko beharra. Kontratu txikiaren figura abusuz erabili zela ondorioztatu zen.

35. LEA/AVC 439-SUST-2020 txostenean, Debako Udalaren kontratazio txikiari buruzkoan, udalak arkitektura-zerbitzuen inguruan egindako kontratazioa zen aztergaia. 2000tik 2019ra bitartean, Udalak 37 kontratu adjudikatu zituen; haietatik 17 kontratu txiki gisa adjudikatu ziren, eta 2 publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez. Txostenaren ondorioetan adierazten denez, aurreikusteko moduko prestazioen ondoriozkoak ziren kontratazioak; izan ere, 1996an, beste hilerri bat eraikitzekeo ideia-lehiaketa bat egin zen, eta, kasu askotan, premia hori asetzera bideratuta zeuden prestazioak.

36. Era berean, aipatu dugun LEA/AVC 479-SUST-2021 txostenean ondorioztatzen zen kontratu txikiaren abusuzko erabilera egin zela; izan ere, kontratu mota hori luzaro erabili zen, nahiz eta zerbitzuak kontratatzekeo premiak aurreikusi ezinak izan ez, kasu askotan, urtero egin beharrekeo zerbitzu errepikariak izanik (errege-kabalkada edo astero egiten den azoka, esaterako), eta, beraz, kontratuak kateatu egin direla baieztatu daiteke. Hori guztia ekidin zitekeen, baldin eta kontratazioa egoki planifikatu izan balitz.

37. SPKLren 29. artikulua xedatzen du sektore publikoko kontratuen iraunaldia zehazterakoan kontuan hartu behar dela prestazioak zer-nolakoak diren eta haien finantzaketa nolako izango den, bai eta aldian-aldian haiek egitea lehiari jarri beharra ere. Zerbitzu-kontratuetan, iraupen-epea erabakigarria da lizitaziorako eta adjudikaziorako aplikatu beharrekeo araubidearen balio zenbatetsia kalkulatzeko, eta, askotan ikusi den bezala, kontratu kateatuak batu ondoren, egiaztatzen da horrekin saihestu egin direla beste prozedura batzuk erabiltzera behartzen duten kontratazio-arauak.

38. Kontuan izan behar da kontratuak aldian-aldian lehiari jarri behar direla, eta iraunaldi luzekeo lehia oztopatu, murriztu edo faltsutu egin dezaketela.

39. Ondorioz, objektu berbera duten kontratazioak aldian-aldian errepikatzen badira, kontratuak kateatu egingo dira eta, era berean, zatikatze irregularren kasua izango da,



beharrizan horiek lizitazio publikoaren mende jarri behar baitira, SPKLn aurreikusitako prozedura arrunten bidez.

4.3 LEA/AVCk hautemandako irregulartasunak

40. Erakunde honek aztertutako kasuak erreferentziatzen hartuta, LEA/AVCk kontratazio txikietan hautemandako irregulartasun motak zerrendatzen dira jarraian. Tartean, kontratua zatikatzea eta kontratuak errepikatzea edo kateatzea, zeharkatu ezin diren lerro gorriak biak ala biak, lehen genioen bezala. Gainera, beste irregulartasun mota batzuk ere zerrendatzen dira:

- a) Kontratuak zatikatzea.
- b) Araudiak ezarritako atalasea gainditzea.
- c) Kontratuak kateatzea.
- d) 12 hilabetetik gorako iraunaldia.
- e) Behar den dokumentazioa faltatzea espedientean: kontratazio-organoaren txostena, kontratuaren beharra, gastuaren onespina eta dagokion faktura arrazoitzen dituenak.
- f) Faktura baino geroagoko data daramaten memoriak eta gastuaren onespenak.
- g) Gutxienez hiru aurrekontu ez eskatu izana eta espedientean ez egiaztatzea (nahitaez bete beharreko instrukzioa dagoenean soilik da irregulartasuna).
- h) 5.000 euroko edo hortik gorako balio zenbatetsia duten kontratuak kontratatzailearen profileen hiru hilean behin ez argitaratzea, haien objektua, iraupena, adjudikazioaren zenbatekoa eta adjudikazioduna adierazita.

V. PLANGINTZA

41. Nolanahi ere, plangintza egoki egitea da sektore publikoaren erosketa-jardueraz eman beharreko gomendio nagusia. Horregatik, aparteko apartatu batean jorratuko da gaia. Bere erakundeari ondasunak eta zerbitzuak emateko betekizuna duen edozein zerbitzurenzat ezinbestekoa da kontratazio-premien plangintza egoki egitea, erabili beharreko baliabideak eta bitartekoak modu efizientean kudeatu ahal izateko.

42. Berrito diogu kontratu txikiaren modalitatea erabiltzea salbuespenezkoa izan behar duela, ezin aurreikusizko beharrak, hain zuzen ere planifikatu gabe zeudelako, agertzen direnean izapidetzeko ezohiko mekanismo arin eta erraz baten bidez ase ahal izan daitezen.

Egia esan, prestazio batzuk ezin dira estali gabe geratu egun bakar batean ere, esate baterako, zaharren egoitza bati janaria emateko zerbitzua; baina horrek ez du *per se* justifikatzen kontratu txikiaren modalitatea erabiltzea, agerikoa baita premia horrek aldaketarik gabe irauten duela egoitza zabalik dagoen bitartean.

- 43.** Prozesu errazen bidez, esate baterako, erakundearen kontratazioari buruzko datu-basean edo espediente-kudeatzaileari kontsulta soil bat eginez edo, are aurrekontu-ekitaldi bakoitza amaitu baino lehen erakundearen zerbitzuei erosketa publiko bidez etorkizunean hornitu beharreko premiei buruz kontsulta eginez ere, ekitaldi bakoitzean estali beharreko premien zerrenda bat lor daiteke, eta SPKLn aurreikusitako prozedura arrunten bidez izapidetzen has liteke, premia horiek inoiz ere zaindu gabe ez egoteko.
- 44.** Ildo horretan, EKPABek adierazi du kontratazio-organo bakoitzak garatu beharreko kontratu-jardueraren programazioak, SPKLk¹⁰ xedatzen duenak, denbora-tarte bakoitzean egingo diren kontratuak aztertzea eskatzen duela, *«eta horrek esan nahi du, ezbairik gabe, kontratazio-organoak badakiela prestazio jakin baten beharra urtebetetik gorako epean mantenduko dela. Beraz, kontratazio-organoak bere kontratu-jarduera egoki planifikatzeko betebeharrari men egiten badio, argi dago badakiela hurrengo ekitaldietan prestazio berdinak beharko dituela, eta horrek esan nahi du kasu horretan ez dela erreakzionatzen ari bat-batean sortutako beharren, premia ezezagunen edo premia berrien aurrean; aitzitik, kontratu txikia legeari iruzur egiteko baliatzen ari da».*
- 45.** Kontratu-jardueraren plangintza eta programazioari dagokionez, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren *Guía sobre Contratación Pública y Competencia: planificación de la contratación* kontsulta daiteke. Bertan adierazten denez, behin eta berriz errepikatzen diren premien plangintza on batek aukera emango luke premia horiek prozedura egokiagoen, behar bezala publizitatuen eta lehiara irekien bidez adjudikatzeko; horrekin, baliabide publikoen kudeaketa efikazagoa eta efizienteagoa izango litzateke, eta kalte txikiagoa egingo litzaioke merkatuen lehia-funtzionamenduari. Laburbilduz, plangintza on batek mugatu egiten du kontratu-figurak behin eta berriz edo gehiegi erabiltzea, kontratu txikiak, kasu, gure kontratazio publikoaren sistema egituratzen duten printzipioak aldatzea baitakarte.
- 46.** Tamaina txikiko toki-erakundearen arazo espezifikuari dagokionez, baliabide material edo giza baliabide nahikorik izaten ez dutenez, zailagoa gerta dakieke izapidetze-prozedura arruntak izapidetzea; baina, SPKLren zioen azalpenean adierazten den bezala, kontratatzekeo tresna arin eta efiziente berriak ematen ditu arauak, zenbateko jakin baterainoko premiei erraz samar erantzuteko aukera ematen dutenak, erosketa publikoa arautu behar duten printzipioak errespetatuz.
- 47.** Beraz, kontratu txikia erabili ordez, prozedura ireki sinplifikatu laburtura jotzea alternatiba egokia da.

¹⁰ 14/2020 txostena, Estatuko Kontratazioaren Aholku Batzordearena.

48. 5.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrientzat hori ezinezkoa denean, beste erakunde batzuei kontratazio-prozedurak kudeatzeko mandatua emateari buruzko hitzarmenak egin ahal izango dituzte, SPKLn aurreikusten den bezala¹¹.

VI. KOLUSIOA ETA KONTRATU TXIKIA

49. Kontratazio txikiari eta lehiari buruzko txosten batek ezin litzake bazter utzi kontratu modalitate horrek dakartzan kolusio-arriskuak, espedientea izapidetzeko ardura duen zerbitzuak espedientearen izapidetze irregularra egin ez badu ere.

50. Sarritan, lehiaren defentsarako agintaritzek egiaztatu dute eragile ekonomikoek lehiaren aurkako jardunbideak egin dituztela eta kontratuak banatu dituztela haien artean kontratu modalitate horrekin izapidetutako espedienteen esparruan.

51. Operadore ekonomikoek erosketa publikoaren eremuan egiten duten arau-hauste ohikoenak kolusio-akordioak dira. Jardunbide horiek LDLren 1. artikuluan tipifikatuta daude; bertan debekatu egiten da *taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, horien helburua ondorengo bada edo izan badaiteke: estatuko merkatu osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea; bereziki ondorengo akordio edo erabaki motak egongo dira debekatuta: c) Merkatua edo hornigai-iturriak banatzea.*

52. Lehiaren zuzenbidearen aurkako kolusio-akordio horiek, *bid rigging* deitu ohi direnak, lehiakide potentzialen artean lizitazioak manipulatzeko eta iruzur egiteko akordioak izaten dira. Lizitatuzaileek, modu independentean eta autonomoan lehiatu eta eskaintzak aurkeztu beharrean, konspiratu egiten dute lehia faltsutzeko, prezioak igotzeko, kalitatea murrizteko eta abarrerako.

53. Praktika horiek askotarikoak izan daitezke, baina helburu bakarra dute: onurak legez kontra eta artifizialki maximizatzea, interes orokorraren kaltetan. Besteak beste, honelakoak dira:

- Prezio-akordioak
- Merkatuaren banaketa
- Eskaintzak txandakatzea
- Estaldura-eskaintzak
- Eskaintzak erretiratzea
- Azpikontratazioa
- Informazio-trukea

¹¹ SPKL, bigarren xedapen gehigarria. Toki-erakundeen kontratazio-arloko eskumenak.



- Aurrekoen konbinazioak

54. Kontratazio publikoa manipulatzeko bereziki kaltegarria da gizartearentzat, zuzeneko eragina baitu baliabide publikoetan, kalitatean eta eman beharreko zerbitzuen berrikuntzan.

6.1 Estaldura-eskaintzak

55. Estaldura-eskaintzat hartzen dira kolusio-akordio bat duten operadoreek lizitazio batean aurkeztutako eskaintzak, benetako lehia dagoela itxuratzeko helburuarekin aurkezten direnak, baina lizitazioaren adjudikaziodun izateko aukerarik ez dutenak. Operadoreen artean alde aurretik adostu da nola eratu eskaintzak, alde aurretik beraien hautatutako operadorearentzat izan dadin adjudikazioa, eta hark aurkeztuko du eskaintzarik onena, eta, beraz, bera izango da adjudikazioduna.

56. S/DC/0627/18 AHOLKULARITZA-ENPRESAK espedientean, LEA/AVCK EAEn hasi eta ondoren MLBNri esleitu zitzaionean, 5,87 milioi euroko isunak ezarri zitzaizkien aholkularitza-zerbitzuetako 22 enpresari, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1. artikulua eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 101. artikulua urratzeagatik (kartel bat eratzea). Espedientean egiaztatu zen enpresek gutxienez 10 urtez manipulatutako zituztela lizitazio publikoak.

Haien *modus operandi* estaldura-eskaintzak aurkeztea zen, lehiarik ez egoteko eta enpresetako bat adjudikaziodun izan zedin. Iruzurrezko jardunbide horiek administrazio asko eta askori eragin zieten¹².

57. Gehienetan, publizitaterik gabe negoziatutako kontratuak ziren, eta administrazioak enpresa gutxi batzuk gonbidatzen zituen beren eskaintzak lehian aurkez zitzaten; hala ere, kontratu txiki gisa izapidetutako espedienteetan estaldura- edo laguntza-eskaintzak manipulatutako eta aurkeztu zirela ere egiaztatu da.

¹² Guztira, MLBNk 200 kontratu publiko aztertu zituen, jokabidea egiaztatzen zen urteetan egindakoak.

Iparraldeko lankidetzaren sareko kartelari dagokionez, 101 lizitazio izan ziren, besteak beste, Bilbo, Santander, Sestao, Barakaldo edo Gasteizko udalak; Eusko Jaurlaritzako eta Kantabriako Gobernuaren hainbat sail; Gaztela eta Leongo Junta; Bilboko Portua edo Bizkaiko Foru Aldundia.

Estatuko kartelean, manipulazioak 72 lizitaziori eragin zien, besteak beste, Ogasun Ministerioari; Lan eta Immigrazio Ministerioari; Ekonomia Ministerioari; Madrilgo Erkidegoari; Valentziako Generalitateari; Cadiz eta Sevillako diputazioei; Extremadurako eta Andaluziako juntei; Kataluniako Generalitateari; Kanarietako Gobernuari edo Balear Uharteetako Gobernuari.



Estaldura-eskaintzen bitartez, lehiaketan parte hartzera gonbidatutako aholkularitza-enpresetako bat harremanetan jarri ohi zen bere lankidetzaren sareko beste enpresa batzuekin, haiek ere parte hartuko zutelako bai baitzekien, eta eskatzen zuten eskaintza galtzaile bat aurkezteko edo, besterik gabe, prozesuan parte hartzeko gonbidapenari uko egiteko. Batzuetan, estaldura eskatzen zuen aholkularitza-enpresak berak egiten zituen ustezko lehiakideen eskaintzak, edo gonbidapenari uko egiteko gutuna prestatzen zien.

58. Sistema horren bidez, etengabe igo ziren administrazioak aholkularitza-zerbitzuengatik ordaintzen zituen prezioak, zerbitzuen kalitatea hobetzeko pizgarria mugatu egin zen eta lizitazio-prozesuetan karteletatik kanpoko lehiakideek parte hartzea eragotzi zen. Jokabide horiek bete-beteko eragina eduki zuten altxor publikoan, aurrekontuen bidez ordaintzen diren kontratuak baitziren.

59. Oso zaila da sektore publikoko kontratazioan kolusio-kasuak detektatzea, aldezturik zantzuak edo frogak eskainiko dituen salaketarik izan ezean; eta zailtasun hori are handiagoa da haren esparruak kontratu txikiak ere barne hartzen baditu, espediente horien dokumentazio urritasunagatik eta gardentasun faltagatik.

60. Halaz eta guztiz ere, zenbait baliabide erabil daitezke horrelako espedienteetan kolusio-zantzuak detektatzeko eta, hala badagokio, lehia defendatzeko mekanismoak abian jartzeko, jarraian azalduko den moduan.

6.2. Azpikontratazioa eta faktura gurutzatuak

61. SPKLk aukera ematen du enpresak azpikontratatzeko, baldintza eta kasuistika jakin batzuen pean, eta, beraz, figura hori zilegi da; baina batzuetan lehiakideen artean kontratuak banatzeko tresna gisa erabili izan da figura hori.

62. Funtsean, operadoreek beren eskaintzak modu independentean aurkezten dituzten itun bat, non adjudikaziodunak prestazioen zati bat besteari edo besteei azpikontratatzeko konpromisoa hartzen baitu, itunkide orok onura lor dezan.

63. Kontratu txikien azpikontratazioari buruzko informaziorik ez dagoenez, bereziki zaila da hura detektatzea. Hala, kontratazio-prozedura arruntetan nahitaezkoa bada azpikontratatu nahi diren prestazioak adieraztea, ez da horri buruzko ezer adierazten kontratu txikiaren erregulazioan, eta, beraz, espedienteak ez du datu hori jasotzen.

64. Hondarribiko Udalarari buruzko espedienteetan, LEA/AVCk hainbat enpresa lehiakidek egindako hirugarrenen adierazpenak aztertu zituen, haien artean jaulkitako faktura



gurutzatuekin batera¹³; horren ondoren, ikusi zen batzuetan elkarri zerbitzuak ematen zizkietela. Txosten hartan arrazoitu zen bezala: *Horrek, berez, ez du esan nahi kontratazio-araudiaren edo lehia-araudiaren aurkako jarduketarik egin denik; izan ere, azpikontratazio-kasuak izan litezke, eta, gainera, kontratazio txikiaren kasuetan, ez dago debekatuta, eta ez da bete behar hura formalizatzeko edo jakinarazteko berariazko arauketarik ere. Hala ere, arreta berezia jarri behar da azpikontratazioa ez dadin erabili enpresa lehiakideen artean kolusiozko jokabideak antolatze bide gisa.*

65. Hala ere, paradoxikoa da enpresa bati zuzenean kontratu txiki baten bidez adjudikazioa egitea; izan ere, hark prestazioak egiteko eta hark adjudikatutako zerbitzuak beste enpresa bati azpikontratatzeko gaitasun eta kaudimen nahikoa izan behar ditu.

6.3. Enpresen arteko loturak

66. Kontratu txikiak izapidetzean gerta daitekeen lehiarik ezaren beste kasu bat da eskaintza bat baino gehiago eskatzea, baina ustez lehiakide diren enpresak egiatan elkarri lotuta egotea. Kasu horietan, itxuraz, lehia egon badago, baina ez da hala benaz.

67. Hondarribiko Udalaren espediente horretan egiaztatu zen kasu batzuetan ohiko enpresa adjudikaziodunak beren zuzendaritza-kargudunaren bidez elkarri lotuta zeudela, hiru enpresaren administratzaile bakarra eta horietako biren bazkide bakarra baitzen hura; beraz, administratzaile edo bazkide bakar horrengatik lotuta zeuden enpresei adjudikatutako zenbatekoen batuketa egitean, enpresa talde bakar bati adjudikatutako kontratuen kopurua are handiagoa zen.

68. Aztertu dugun kasuan, kontratu txikien erabilera eta Hondarribiko Udalaren muntaketa-zerbitzua, ondorioa da lehia kontratu txikiak baliatzean berez dena baino are murriztagoa izan dela; izan ere, zerbitzu-emaile ohikoak elkarri lotuta zeuden batzuetan, eta beste batzuetan, aldiz, bata bestea azpikontratatzeko zuten.

¹³ Kontratu horietan kolusioa egon daitekeelako informazioa eta zantzuak lortzeko modu bat da hirugarrenekin egindako eragiketen urteko aitortpenak ematen duen informazioa eskuratzea. Zerga-araudiak ezartzen duenaren arabera, jarduera ekonomikoak garatzen dituzten enpresaburuek eta profesionalek 347 eredua, Hirugarrenekin egindako eragiketen urteko aitortpena, aurkeztu behar dute nahitaez, beste pertsona edo erakunde batekin guztira 3.005,06 €-ko zenbatekoa (BEZa barne) gainditi duten eragiketarak egin badituzte aitortpenari dagokion urte naturalean https://sede.agenciatributaria.gob.es/Sede/ayuda/manuales-videos-folleto/manuales-practicos/folleto-actividades-economicas/8-declaraciones-informativas/8_2-declaracion-anual-operaciones-terceros-347.html

VII. ONDORIOAK

69. Kontratu txikien erabilera erosketa publikoko eginkizunak betetzeko ardura duten langileen lana asko errazten duen tresna bat da; izan ere, aukera ematen du erakundearen beharrak asetzeko, SPKLn jasotako prozedura arruntak izapidetzean baino denbora eta baliabide gutxiago erabiliz.

70. Hala ere, hura izapidetzeko SPKLn jasotako baldintzen arabera, zuzeneko kontratazioa egingarria zatekeen arren, kontuan izan behar da SPKLren 1. artikuluan jasotako printzipioek, besteak beste, lehia askea babestekoak, erosketa publikoko edozein prozeduraren oinarri izan behar dutela; beraz, lehia gabeko prozedura bat izapidetzeari uko egitea egoki eta aski arrazoitu behar da espedienteetan.

71. Ildo horretan, ezinbestekoa da oreka aurkitzea prozedura-efizientziaren (baliabideak eta denbora) eta lehia askearen printzipioen babesaren artean, kontratu txikien erabileran.

72. Kontratu txikien gehiegizko erabilerak zuzenean dakar merkatuak denbora-tarte luzeetarako giltzatzea, eta operadore interesdunek ez izatea aukerarik merkatuan sartzeko aldi horretan.

73. Konkurrentziarik eta lehiarik ezak, merkatuen lehia-funtzionamenduari ez ezik, tokiko erakunde lizitatzailari eta, beraz, herritarrei ere kalte egiten die. Erabilitako baliabide ekonomikoak altxor publikotik datoz, eta lehiarik ezak prezio altuagoak eta kalitate txarragoko prestazioak ekarri ohi dituzenez, ziurrenik prezio altuagoak ordainduko dira, baliabideak ezingo dira beste politika publiko batzuetan erabili, eta erabiltzaileek kalitate txarragoko zerbitzuak jasoko dituzte.

Horregatik, beharrezkoa da prozesu horietan konkurrentzia bultzatzearen beharra azpimarratzea eta eskaintzak aurkezteari arrazoirik gabe mugak ez ezartzea.

74. Azkenik, nabarmendu nahi genuke LEA/AVCn kexa kopuru handi samarra jasotzen dela administrazioak kontratu txikiak erabiltzeaz. Kontratu-errekurtsoen administrazio-organoez ez dute gai horien berri izateko legitimaziorik, eta, *a priori*, gai hutsalagoak dira lehia-agintaritzarentzat. Kasu horretan, administrazioarekiko auzien jurisdikziora jotzea izango litzateke aukera bakarra.



VIII. ERANSKINA

KONTRATU TXIKIAK EGITEKO JARDUNBIDE EGOKIEN DEKALOGOA

Oharra: kontratu txikien erabileran benetako lehia sustatzearen ikuspegitik egindako gomendioak dira atal batzuk, eta ez kontratu-araudiaren arabera nahitaez bete beharreko jarraibideak.

Kontratazio publikoaren araudiaren printzipio gidarietako bat da lehia askea babestea, botere adjudikatzaileek ondasunak eta zerbitzuak kalitate/prezio erlazio onenarekin lortuko dituztela ziurtatzen duena, horrek gizarte osoari ekarriko baitio onura; horregatik da hain garrantzitsua printzipio hori babestuko duten prozeduren arabera izapidetzea.

JARDUNBIDE EGOKIEN DEKALOGOA

LEHENENGOA.- Kontratazio-espedientea izapidetzen hasi aurretik, ase beharreko premia badagoela egiaztatu egin behar da. Premia, kontratuaren objektua bera, argi eta xehe zehaztu behar da, eta espedienteari erantsi behar zaio.

BIGARRENA.- Ase beharreko premia aintzat hartuta, aurreikusitako gastu-atalasea kontratu txikirako mugen barruan ote dagoen egiaztatu beharko da: 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia obra-kontratuak direnean, edo 15.000 eurotik beherakoa hornidura- edo zerbitzu-kontratuetan. Zenbatetsitako prezioari buruzko informazioa lortzeko, beste botere adjudikatzaile batzuek adjudikatutako antzeko kontratuak azter daitezke.

HIRUGARRENA.- Egiaztatu behar da ez dela adjudikatu objektu bereko kontratu gehiago, eta horien baturak ez duela gainditzen kontratu txikiarako baimendutako zenbatekoa. 12 hilabeteko epean zatiketarik ez dagoela egiaztatu behar da.

LAUGARRENA.- Ez dira kontratatu behar prestazio errepikakorrek edo aurreikus daitezkeenak (instalazioak garbitzeko zerbitzuak, telefonia, igogailuen mantentze-lanak eta abar). Kontratuen erregistroan kontsultatu behar da zer prestazio errepikatzen diren urtez urte.

BOSGARRENA.- Kontratu txikia baliatzeko baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, kontratazio-organoak premiaren memoria sinatu behar du; bertan,



beren-beregi adieraziko da ez dela kontratuaren objektua aldatu kontratazio-arauak saihesteko, eta espedienteari erantsiko zaio hura.

SEIGARRENA.- Eskaintzarik onena aurkeztu ahal izateko, enpresek zehatz-mehatz jakin behar dute zein diren ase beharreko premiak; horregatik, ahalik eta argien zehaztu behar da zein den premia, modu garden, objektiboan eta neutroan, markei eta abarri dagokienez.

ZAZPIGARRENA.- Kontratisten erregistroan alde zurretik egiaztatu ondoren, kaudimen eta gaitasun ziurtatuak dituzten enpresei egin behar zaizkie eskaintza-eskaerak.

ZORTZIGARRENA.- Eskaera bitarteko elektronikoen bidez egin beharko da, igorri dela egiaztatu ahal izateko. Behar adina enpresari (gutxienez hiruri) egingo zaie eskaera, eta egun eta ordu berean bidaliko zaie guztiei, erantzuteko epe berbera emanaz, tratu-berdintasunaren printzipioa bermatzeko. Enpresei ez zaie jakinarazi behar eskaintza zeini eskatu zaien, *bid rigging*-a ekiditeko.

Eskaintza indibidualizatuak eskatzearen alternatiba modura, gomendatzen da eskaintza-eskaera modu irekian argitara ematea kontratatzailearen profilean.

BEDERATZIGARRENA.- Jasotako eskaintza guztiak artxibatu egin beharko dira, eta balorazio-txosten tekniko bat egin beharko da, kontratazio-organoarentzako proposamen batekin.

HAMARGARRENA.- Kontratazio-organoaren adjudikazioa arrazoitu egin beharko da, bereziki adjudikazioa eskaintza merkeenarentzat ez bada, eta dagokion kontratatzailearen profilean argitara eman beharko da. Parte hartzen duten gainerako enpresei adjudikazioaren berri eman behar zaie. Kolusio-zantzuak izanez gero, dagokion lehiaren agintaritzari jakinarazi beharko zaio (SPKL, 132.3; eta SPKL, 150; azken hori oraindik ez dago indarrean).